

GIB/HIESA "Eskuragarritasun osoa orain!"



Munduan azaldu zenetik laurogeigarren hamarkadaren hasieran, HIESAren epidemia **25 milioi heriotza** baino gehiagoren kausa izan da, horietako ia 3 milioi azken urtean.

Mundu osoan Hiesarekin bizi diren pertsonen kopurua **2007an 33,2 milioira iritsi zen**. Egunero **6.800 pertsonak baino gehiagok hartzen du infekzioa** eta **5.700 baino gehiago hiltzen hiesaren** infekzioagatik, kasu gehienetan GIB-aren prebentzio eta tratamendu zerbitzuetara iristeko bide desagokiagatik. Hiesaren pandemia oraindik ere nazioarteko komunitatean desafiorik garrantzitsuenetakoa da.

2000. urtean, nazioarteko komunitateak **Hiesaren** aurkako borroka **nazioarteko garapenaren lehenetako bat** bezala onartu zuen. Horrela jaso zen 2015. urterako **Nazio Batuen Milurtekoaren Garapenerako Helburuen** 6.lean: "Hiesa, Malaria eta bestelako gaixotasunak gelditu eta gutxitzen hasi izana".

Horren ostean, 2006an Nazio Batuen Batzar Orokorrean **HIESari buruzko maila altuko** bilera bat egin zen, 2001eko Hiesaren aurkako Konpromisoaren Deklarazioaren aplikazioan egindako aurrerakuntzak aztertu zituen. Baita ere 2006an **Torontoko Nazioarteko Konferentziak** "Betetzeko ordua da" lemarekin ekintzara bultzatzen zuen.

Ekimen hauek eta beste batzuk egon arren, gobernuek hiesaren aurka egiteko hartutako konpromisoak **asmoen adierazpen soila** besterik ez dira eta munduko agintariak **bete gabe jarraitzen dute**. Gehien gailentzen den eskualdetan, Hiesa pobrezia eta bazterketaren oinarritzko eragilea da, genero desberdintasunak areagotuz eta diskriminazioarekin eta giza eskubideen urraketarekin guztiz lotuz.

Hiesaren aurkako borroka dimentsio horiei atzeman eta heltzea eskatzen du, epidemiaren kausa eta ondorio baitira. Lankidetzaren espainolak gaixotasuna larrialdi global bat bezala ulertu behar du, **erantzun dimentsioan** bat emanez, Hiesaren aurkako borroka garapenerako lankidetzaren jardura esparru bakoitzean gehituz.

Hori guztia dela eta Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu, nazioarteko gertaeretan beren parte hartzerakoan eta beren politikak planifikatu eta ezartzerakoan:

- **Babestu eta onartu** dezala gehien eragindako herrialdeetako bertako komunitateek aurrera eramaten duten laguntza Hiesaren aurkako borrokari erantzuna emateko, aktiboki babestu dezala Iparraldeko eta Hegoaldeko gizarte zibileko erakundeek egiten duten lana Hiesaren epidemiari erantzun global bat emateko.

- Jarrai dezala **Hiesaren arloan garapenerako laguntzaren kantitatea eta kalitatea** gehitzen, modu aktiboan parte hartuz *Fondo Globalean* entitate emaile bezala sustatuz emaile eta hartzaileen artean Parisko Deklarazioko printzipioen ezartzea, alegia, laguntzaren eraginkortasuna eta espainiar lankidetzaren printzipio horizontalen, giza eskubideen promozioa eta genero eta gobernu egokiaren ezarpena.

- **Eman dezala erantzun dimentsioanitza bat**, ez dena egongo soilik hiesarekin bizi diren pertsonengan oinarritua, baizik eta beren Giza Eskubideetan. Epidemiaren arlo guztiak hartuz, bere sustrai sozio- ekonomikoak barne, eta pertsona eta komunitate kaltetuen parte hartze aktiboarekin, **bereziki emakumeenarekin**.

- **Berma dezala** hiesari erantzuteko egiten diren lankidetzaren politikaren koherentzia eta emaileen armonizazioa, zainduz politika horiek ez daitezela kontrajarri zorrarekin zerikusia duten edo politika komertzialekin eta hori guztia GIB/Hiesaren epidemiaren dimentsioanitza kontutan hartuz egin dadila.

- **Jarrai dezala sustatzen** beharrezko laguntza teknikoa egotea jaso behar duten herrialdetan bai finantzatutako proposamenak ezartzen eta iraunkortzen eta baita GIB/hiesaren maila guztietan bere aurkako borrokara bideratutako proposamen gehiago lortzeko eskakizun gehiago lortzeko.

- **Lerokatu dadila GIB/Hiesaren inguruko estrategiekin** horiek existitzen diren herrialdetan eta erraztu ditzala VIH/Hiesaren inguruko strategiak sortzeko eta ezartzeko prozesuak, osasun sistema publiko eta **herrialde hartzaileen bertako lanabesen** bitartez, lidertasun nazionalaren printzipioa mantenduz.

Manifestu honen sinadurarekin ados bazaude, bidal diezaguzu zure izen-abizenak eta NAN-a educ.gipuzkoa@medicushmani.es – era, zure mazuaren gaian jarritz HIESA/GIB MANIFESTU SINADURA.

Mila ezker!!!